Sagardotegiak etorkizunari so

Gizartean gertatzen ari den bilakaera teknologikoa kontuan hartuta, geroz eta gehiago dira web orria jartzea erabaki duten sagardogileak



*** Azken urteetan Internet hartzen ari den garrantzia kontuan hartuta, geroz eta gehiago dira web orrialdea dute sagardotegi eta sagardo elkarteak.

Sagardotegiak, ohiko tradizioei lotutako gunetzat hartu izan dira beti. Baina, azken urteetan, gizarteko beste arloen antzera, teknologia berrien munduan murgiltzen hasi dira. Ildo horretatik, duela bi urtetik hona, asko dira web orria eta helbide elektronikoa duten sagardotegi eta sagardo elkarteak. Oraindik zerbait berria da, baina gizartean sarea hartzen ari den garrantzia kontuan hartuta, etorkizuna hor dagoela badakite sagardogileek, Ondorioz, hemendik urte gutxira, sagardotegi gehienek web orria eta helbide elektronikoa izango dute.

Duela bi urte inguru egin zuten sagardotegiek web orria jartzeko proposamena, Gipuzkoako Sagardo Naturalaren Elkarteko kideen bilera batean. Sagardotegi batzuek proposamena onartu zuten, eta web orriak diseinatzen dituen enpresa batekin harremanetan jarri ziren. «Proposamena mahai gainean jarri bezain laster, guk onartu egin genuen, etorkizuna hor baitago. Salmenta eta publizitaterako gune garrantzitsua izan daiteke sarea, gaur egun jendeak geroz eta ohitura handiagoa baitu sarean ibiltzeko», dio Adunako (Gipuzkoa) Zabala sagardotegiko Amaia Zabalak. Gainera, kontuan izan behar da gazteak direla sarean gehien ibiltzen direnak; eta etorkizuneko bezeroak horiek izango direla kontuan hartuta, sagardozaleek garrantzizkotzat jo dute zerbitzua.

Etorkizunean erreserbak Internet bidez egiteko aukera eskaini nahi dute

Lehen urratsak

Helburua salmenta eta publizitatea lortzea bada ere, Zabalak zerbitzua oraindik berria dela onartzen du, eta denbora batez itxaron beharko da horren bidez bezeroak lortzeko «Baten bat etorri izan zaigu Internet bidez ezagutu gaituela esanez. Baina oraindik oso gutxi dira. Zertxobait itxaron beharko dugu lehen emaitzak ikusteko». Horrela izan arren, bai Zabalak eta baita web orria duten beste sagardotegi gehienek zerbitzu hori eskaintzen jarraituko dute. «Epe luzera, emaitzak izango dituen zerbitzua izango dela uste dugu; oraindik jende askok ez baitu barneratu teknologia berrien kultura».

Ildo horretan, askok eta askok berritu nahi dute duela bi urte inguru sortu zuten web orria. Hori da Zabala.sagardotegiaren kasua: «Web orria berritzea gustatuko litzaiguke, zerbitzu berriak eskaintzeko, eta daudenak berritu ahal izateko», azpimarratu du Zabalak.

Orrialde askotarikoak

Sagardotegietako web orriak oso askotarikoak dira. Hala ere, gehien eskaintzen diren zerbitzuak bi dira: sagardotegiaren argazkiak eta sagardoa egiteko prozesuaren azalpena. Beste askotan ere, menuaren eta botila sagardoaren prezioak agertzen dira. Baina, etorkizunean, zerbitzu berriak eskaintzea gustatuko litzaieke sagardotegiei.

Berrikuntza horien artean, Zabalak Internet bidez erreserbak egiteko aukera aipatu du. Horrek asko erraztuko luke beraien lana.

Hernaniko Udala
Denboraren besoetan
hegal egiten duen
Herria da gurea.
Tristura haizeratzen ohitura dagoena,
baina zoriona borrokatzen ikasi duena.
EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA